

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea establezimenduak irekitzeko baimenaren edo udalak egiten duen egiaztatzeko jardueraren tasa arautzen duen ordenantza aldatzeari

Zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasa (3. epigrafea: establezimenduak irekitzeko baimena edo udalak egiten duen egiaztatzeko jarduera) arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari hasierako onespena ematen zion erabakia, udalbatzak 2018ko urriaren 10ean hartutakoa, jendaurrean egon den bitartean, erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero (ALHAO, 121. zk., 2018ko urriaren 22a), erabaki hori behin betiko onartzen da, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Aipatutako 7/1985 legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, osorik argitaratzen da behin betiko erabakia, eta argitaratzen denetik aurrera aplikatuko da.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (29/1998 Legea, uztailaren 13koa). Horrek guztiak ez du eragozten bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtsu aurkeztea.

ZERBITZU PUBLIKOEN ETA ADMINISTRAZIO JARDUEREN TASA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauak xedatzen duenarekin bat etorritik, udal honek zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasa ezarri eta eskatzen du, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baita jarduera horiek jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA-EGITATEA

3. artikulua

Zerga gaia da Udalak benetan zerbitzua eskaintzea edo jarduera egitea, bai eskatu zaiolako, bai gizabanakoek egindako ekintzek eta egin gabe utzitakoek zeharka eragin dutelako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen dituen erakundeak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta horien onuraz edo eraginaz gozatzen badute.

2. Zergadunaren ordezkioak izango dira:

a) Zerbitzu edo jardueren tasetan, onura edo eragina jasotzen duten erabiltzaileen etxebizitza edo lokalen jabeak; haiek, hala badagokio, onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete.

b) Arriskua aseguratzen duten erakundeak edo elkarteak, zerbitzu hauen tasetan: suteen prebentzioa eta itzaltzea; aurri, eraikuntza eta eraisketen prebentzioa, salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta zerbitzua mantentzea.

c) Hirigintza baimenen tasetan, hau da, lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutakoetan, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua

Hauak ordaindu beharko dituzte tasak:

a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek ez badituzte eskatu baina haiek egindako edo ez egindako zerbaitengatik burutu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa egotz dakiokena.

6. artikulua

Ordenantza honetatik ateratzen diren zerga zorrak, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ordainduko dituzte.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

7.1. Tasatik salbuetsita egongo dira Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzen dutenak. Sartu ahal izateko, alde zurretik eskatu egin beharko da, eta egiaztatu oinarrizko gizarte zerbitzuaren agiriaren bidez.

7.2. Ehuneko 75eko hobaria izango dute gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzen dituztenek. Sartu ahal izateko, alde zurretik eskatu egin beharko da, eta egiaztatu oinarrizko gizarte zerbitzuaren agiriaren bidez.

V. ZERGA OINARRIA

8. artikulua

Zerbitzua egiten duen unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinean ezarritakoari jarraituz.

VI. KUOTA

9. artikulua

Zerga kuota, eranskinean ezartzen denaren arabera, honako hau izango da: zerga oinarriari tarifa bat edo horretarako propio ezarritako kopuru bat aplikatuz ateratzen dena, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua

Tasa sortzen da zerbitzua edo jarduera egiten denean.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua

Udalak kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskineko tarifetan dauden arauen arabera.

12. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioari eta dagozkien zehapenak zehaztearen gaineko guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskina bertan adierazitako egunean onartu ziren behin betiko, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera egongo dira indarrean eta horrela jarraituko dute harik eta aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA**3. EPIGRAFEA. ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO BAIMENAREN
EDO EGIAZTATZEKO UDAL JARDUERENTASA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, establezimenduak irekitzeko baimenaren tasa ezarri eta eskatzen du, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baita tarifak dauzkan eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA-EGITATEA**3. artikulua**

1. Tasa honen zerga gaia da udalak egiten duen jarduera tekniko nahiz administrati-boa, egiaztatzeko ea industria eta merkataritzako establezimenduek betetzen dituzten udal ordenantzetan eta udal arautegietan zein arautegi orokorretan haien funtzionamendu egokirako eskatzen diren lasaitasun, sanitate eta osasungarritasun baldintzak, zein beste batzuk, eta baldintza horiek bateratzeko, edozein establezimendu irekitzeko beharrezkoa den baimena eman aurretik. Halaber, baldin eta jarduera egiteko ez bada zertan baimena eskatu, hau da, nahikoa bada alde aurretik jakinaraztea edo zinpean aitortzea, zerga gaia izango da udal teknikarien egiaztapen eta ikuskatze lana, jarduera araudiari egokitzen zaiola egiaztatzeko.

2. Ondorio horretarako, establezimendua irekitzea izango da:

a) Establezimendua lehenengo aldiz instalatzea, bere jarduerak hasteko.

b) Establezimenduko jarduera aldatu edo handitzea, nahiz eta titularra ez aldatu.

c) Establezimendua handitzea eta bertan edozein aldaketa egitea, baldin eta artikulua honen 1. zenbakian adierazitako baldintzetan eraginik badu eta, beraz, baldintzak berriro egiaztatu behar badira.

3. Industria edo merkataritzako establezimendu izango da eraikuntza bizigarri oro, jendearentzat irekita egon edo ez, baldin eta ez bada erabiltzen soilik etxebizitzarako, eta:

a) Erabiltzen bada jarduera ekonomikoen gaineko zergaren (edo lizentzia fiskalaren) menpe dauden duten fabrika, artisautza, eraikuntza, merkataritza eta zerbitzuen inguruko enpresa jardueretarako.

b) Jarduera horietarako erabiltzen ez bada ere, horien lagungarri edo osagarri gisa erabiltzen bada, edo horiekin harremanak izanik onurak edo aprobetxamendua ematen dien jardueretarako baliatzen bada, besteak beste, gizarte egoitzak, agentziak, entitate juridikoen ordezkariak edo sukurtsalak, idaztokiak, bulegoak, langelak edo estudioak.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

Subjektu pasibo zergadun izango dira pertsona fisiko nahiz juridikoak eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan aipatzen diren erakundeak, baldin eta egin nahi duten jardueraren titularrak badira edo, hala badagokio, edozein industria edo merkataritzako establezimendutan egiten badute.

5. artikulua. Erantzuleak

Subjektu pasiboaren zerga betebeharrangatik era solidarioan erantzungo dute Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 38. eta 39. artikuluetan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak.

IV. KUOTA

6. artikulua

Tasa eskatuko da eranskinean jasotako tarifen taularen arabera, eta lokal bakoitzeko.

Jarduera batek irekitzeko bi baimen desberdin lortu behar baditu, kopuru handieneko epigrafearen arabera ordainduko da tasa.

Zergapeko lokalean egin beharreko jarduera aldatu edo handitzen bada, tasa aplikatuta ateratzen den kuotari kendu egingo zaio ordaindutakoa lehenengo irekieragatik, eta gerora jardueran egindako aldaketa edo handitzeengatik zein lokalaren handitzeengatik. Ateratzen den aldea izango da ordaindu beharrekoa.

Lizentzia eman aurretik eskatzaileak eskaeran atzera egiten badu, adierazitako kuoten ehu-neko 50 ordaindu beharko du, baldin eta udal jarduera ordurako benetan abiatuta badago.

Baimenik behar ez den jardueretan, hau da, nahikoa denean zinpeko aitorpena edo alde zurreko jakinarazpena, eskatuko da udal teknikariek egin beharreko ikuskatze lanaren tasa, egiaztatze jarduera egokitzen zaiola indarrean dagoen araudiari.

V. SORTZAPENA

7. artikulua

1. Tasa eta hori ordaindu beharra sortzen da zerga gaia gauzatzen den udal jarduera hasten denean. Ondorio hauetarako, udal jarduera hasitzat joko da irekitzeko baimen eskaera aurkezten den egunean, subjektu pasiboak espresuki egiten badu.

Tasa sortzen da, halaber, arloko legeek ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeagatik, jardueretarako alde zurretik ez bada baimenik edo kontrolik behar.

2. Establezimendua dagokion baimena eskuratu gabe ireki bada, tasa sortuko da udalak benetan hasten duenean bere jarduera, egiaztatze establezimenduak betetzen dituen eska daitezkeen baldintzak; horrek ez du kentzen administrazio espedientearen hasiera establezimenduen irekiera baimentzeko edo establezimendua ixteko, baimena ematerik ez badago.

3. Behin zerga ordaintzeko beharra sortuta, eskatzaileak betiere tasa ordaindu egin beharko du, eta horretan ez du eraginik izango eskatutako baimena ukatu izanak, establezimenduen ezaugarriak aldatzeko baldintzapean eman izanak edo eskatzaileak uko edo atzera egin izanak baimena eman eta gero.

VI. KUDEAKETA

8. artikulua. Aitorpena

1. Dagokion eskaera aurkeztu beharko dute, alde zurretik, erregistro orokorrean industria edo merkataritza establezimenduren bat irekitzeko baimena lortu nahi duten interesdunek. Bertan, establezimenduan egin nahi duten jardueren berri emango dute eta alokairu kontratua edo lokala erosi izana egiaztatzen duen agiria erantsi beharko diote. Azken kasu horretan, lokalak katastro baliorik esleituta ez balu, hura erosteagatik edo eraikitzeagatik ordaindutakoa adierazi beharko lukete.

2. Lokala irekitzeko baimena eskatu ondoren aldatu edo handitzen bada establezimenduan egin nahi den jarduera, edo aldatzen badira establezimendu horrek proiektuan jasotako baldintzak, edo hasieran aurreikusitako lokala handitzen bada, udal administrazioari jakinarazi beharko zaizkio aldaketa horiek, aurreko paragrafoan aurreikusitako aitortpenean eskatzen den zehaztasun eta irismen berarekin jakinarazi ere.

3. Aldez aurretik baimenik edo kontrolik behar ez duten jardueren kasuan, titularrak udalean aurkeztu beharko du aldez aurreko jakinarazpena edo zinpeko aitortpena.

9. artikulua. Likidazioa eta ordainketa

Udalak bere jarduera amaitu ondoren, eta irekitze baimenari buruz ebazpena eman ondoren, tasaren likidazioa egingo da eta subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, udalaren diru kutxan zuzenean ordain dezan. Diru sarrera hori Dirubilletako Arautegi Orokorrean adierazitako moduan eta epeetan egingo da.

Baimenak eta ordaindutako tasak iraungitzat joko dira baldin eta, baimenak eman eta hiru hilabete igaro ondoren, establezimendua edo lokala ireki ez bada, ireki ondoren berriro ixten bada, edo baja emanda egon bada sei hilabete edo gehiago jarduera ekonomikoen gaineko zergan, salbu eta aztertu beharreko ezinbesteko arrazoiak gertatu badira, irekiera atzeratzea edo itxi beharra eragin duten kasu edo inguruabarrak tarteko.

Aldez aurretik baimenik edo kontrolik behar ez duten jardueren kasuan, udal teknikariek egiaztatu beharrekoa egiaztatzeko egintza burutu ostean, udalak tasaren likidazioa egingo du, eta jakinarazpena egingo du artikulua honen lehen paragrafoan ezarritako moduan.

Tasa honetan ez da egingo ez salbuespenik ez hobaririk.

VII. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

10. artikulua

Zerga arau-hausteen kalifikazioari buruzko guztian, bai eta kasu bakoitzean arau-hauste horiei dagozkien zigorren kalifikazioan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

VIII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskina bertan adierazitako egunean onartu ziren behin betiko, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera egongo dira indarrean eta horrela jarraituko dute harik eta aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA/TARIFAK

Epigrafea. Euskal Herriko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen II. B eranskinarekin bat etorritik, aldez aurretik jakinarazi behar diren mende dauden jarduera edo instalazio sailkatuak.

1. Hiri lurzoruan dauden establezimenduak, memoria soila lagun duela, 150,25 euro.
2. Hiri lurzoruan dauden establezimenduak, proiektu edo memoria teknikoak lagun duela:
 - a. Era guztietako establezimenduak: 431,85 euro.
3. Industrialdean dauden establezimenduak:
 - a. 250 m² edo gutxiago: 431,85 euro.
 - b. 251 m² - 499 m² bitartean: 863,72 euro.
 - c. 500 m² - 999 m² bitartean: 2.159,27 euro.

- d. 1000 m² - 1999 m² bitartean: 3.231,25 euro.
- e. 2000 m² baino gehiago: 4.523,75 euro.
- 4. lurzoru urbanizaezinean dauden establezimenduak:
 - a. 250 m² edo gutxiago: 427,25 euro.
 - b. 250 m² baino gehiago: 582,6 euro.
- 2. epigrafea. Euskal Herriko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen II. A eranskinarekin bat etorritik, baimen beharraren mende dauden jarduera edo instalazio sailkatuak.
 - 1. Hiri lurretan dauden establezimenduak.
 - a. Era guztietako establezimenduak: 431,85 euro.
 - 2. Industrialdean dauden establezimenduak:
 - a. 250 m² edo gutxiago: 431,85 euro.
 - b. 251 m² - 499 m² bitartean: 863,72 euro.
 - c. 500 m² - 999 m² bitartean: 2.159,27 euro.
 - d. 1000 m² - 1999 m² bitartean: 3.231,25 euro.
 - e. 2000 m² baino gehiago: 4.523,75 euro.
 - 3. Lurzoru ez urbanizagarrian dauden establezimenduak.
 - a. 250 m² edo gutxiago: 427,25 euro.
 - b. 250 m² baino gehiago: 582,6 euro.
- 3. epigrafea. Jardueren titulartasuna aldatzeagatik (1. eta 2. epigrafeak): 300,51 euro.

Erdoña, 2018ko abenduaren 10a

Alkatea

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO